

Funtsezko baliabideak

Gure enpresak produktua ekoizteko eta banatzeko behar dituen baliabideak 4 taldeetan banatuta daude:

- **Baliabide fisikoak**

Gure enpresaren jarduera gauzatzeko behar ditugun ondasun ukigarri guztiak hauek dira. Transformazio-ondasunak, hau da, beste ondasun batzuk ekoizteko manipulatuak eta erabiliak. Bi talde bereiz ditzakegu: Zuzenean edo zeharka erabil daitezke.

1. Zuzenean:

- Makinak: Gure ehun-fabriketan arropa ekoizteko makinak.
- Ekipo informatikoa: enpresaren aktibitatea kontrolatzeko guztiak, ordenagailuak eta tabletak batez ere.
- Lehengaiak, landareetatik ateratakoak: ehuna, kotoia, lokarriak eta gure produktu magikoa ekoizteko materiala polyalta izenekoak.
- Erremintak, arropa josteko guztiak: (Oihalezko guraizeak, papererako guraizeak, Alfilerrak, Desegosgailua, Zinta metrikoa, markatzeko tizak, Imperdibleak, ROWENTA eta Jata mini plantxa, eskuz eta makinaz josteko orratzak (mikrotexa eta unibertsala), Dedal, Hiloak, Hilo hariztatua, Zeta-papera eta jozgailuak.

Laborategiko gailu basikoak gure produktu magikoa ekoizteko:
Probeta, mikroskopioa, petriren plaka, pipeta, saiakuntza-hodia, eskalpeoa, matraza nahaslea, inbutua, balantza, bureta, pintzak, espatula, lima, koilaratxoa, eskobilla, pizgailua, termometroa.

2. Zeharkakoak:

- Lurrak: enpresaren instalazioak dauden lursaila.
- Higiezinak: Lurzoruari lotuak, modu banaezinean, fisikoki edo juridikoki lurrari lotuak, hala nola partzelak, urbanizatuak ala ez, etxeak, industria-nabeak, hau da, finkak. Guk ditugun 3 eraikuntza, fabrika bakarra, 2 finka, 3 partzela eta 3 bulego lan egiteko eta ekoizteko.

Azkenik, segurtasuna bermatzeko materiala, ez dute zuzenean ekoizpenean eragiten baina garrantzitsuak dira ere. Honen barruan adibidez, sua gelditzeko eta aurreikusteko materiala, (su-itzaltzailea eta suaren kontrako alarma) eskailerak igotzen laguntzeko euskarriak... daude

- **Finantza baliabideak**

Mailegu bat eskatu diogu bankuari, 86.000 eurokoa, enpresak hasi ahal izateko eta produktua ekoizteko behar ditugun gauzak erosteko. Bazkideek dirua emango digute, guztira, 20.000 euro. 10 bazkide bilatuko ditugu gure enpresan inbertitzeko. Horrela, bakoitzak, 2.000 euro jarriko du enpresan. Diru hau, guretzat, oso lagungarria izango da proiektu hau aurrera eramateko.

- **Baliabide intelektualak**

- Jabetza intelektualak: patenteak, marka-erregistroak eta prozesuak barne hartzen ditu. Jabetza intelektualak aktibo garrantzitsua da enpresentzat, beste enpresa batzuek prozesuak edo markak kopiatzea saihesten duelako. Ekonomia modernoetan, baliabide ukiezin horiek jabetza intelektualeko legeen bidez babesten dira, teknologia eta prozesu berriak garatzeko pizgarriak sortzeko. Babes horiek egongo ez balira, ikerketarako eta garapenerako pizgarriak oso txikiak izango liriteke; izan ere, edozein enpresak prozesu eta teknologia jakin batzuk kopiatu ahal izango lituzke, ikerketan eta garapenean inbertitu gabe.
- Aktibo intelektualak: enpresaren barruan sortutako aktibo ukiezinak dira, baina ezin dira jabetza intelektual gisa erregistratu. Adibidez, langileen zerrendak, datu-baseak, enpresak garatutako programa informatikoak. Erregistratu ezin diren arren, aktibo garrantzitsua da enpresarentzako, haren arrakasta zehaztu baitezakete. Horregatik babestu behar dira.

- **Giza baliabideak**

Langileen ezaugarriak:

- Trebetasunak eta kalifikazioak: Beharrezkoa da DBHren titulua eta josteko printzipio batzuk arropa ondo egiteko gai izateko.
- Kokapen geografikoa: Komeni da fabriketatik gertu bizitzea, 5 kilometro baino gutxiagora, baina lanera garaiz iristen garen bitartean, ez da guztiz garrantzitsua.
- Esperientzia: Gomendagarria da pare bat urteko esperientzia izatea, baina berriak badira, guk emango diegu ikastaro txiki bat.
- Denboraren erabilgarritasuna: 233 langile 8 ordu egingo dituzte egunean astelehenetik ostiralera, 40 ordu astean, batzuk goizez, goizeko 6etatik eguerdiko 2etara, eta beste batzuk eguerdiko 2etik gaueko 10etara. Langileak 6 taldetan banatzen dira bere eginkizunen arabera: 80 langile arropa egiten dutenak, 10 langile arropa diseinatzen dutenak, 30 marketinaren arduraduna, 15 langile kontabilitateaz arduratzen direnak, 40 langile produktu magiko polyalta egiten dutenak eta 18 publikoarekin hitz egiten dutenak eta beste 40 denda fisikoetan daudenak.